



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko abenduaren 20a

120. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Une hauetan Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura ordaintzen ari diren “itzaleko bidesarien” finantza, ekonomia eta amortizazio alderdiei buruzko aholkularitza-txostena, Nafarroako Comptos Ganberak egina (15. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Barañaingo Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa (4. or.).
- IV. Iritzia (4. or.).
  - IV.1. Udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorra (4. or.).
  - IV.2. Legezketasuna (4. or.).
  - IV.3. 2008ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa (4. or.).
  - IV.4. Comptos Ganberak aurreko txostenetan emandako gomendioen betetzea (5. or.).
- V. 2008ko Kontu orokorraren laburpena (6. or.).
  - V.1. Aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria (6. or.).
  - V.2. 2008ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratua (7. or.).
  - V.3. 2008ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren emaitza (8. or.).
  - V.4. Diruzaintzako gerakin bateratuaren egoera-orria 2008ko abenduaren 31n (8. or.).
- VI. Iruzkina eta gomendio orokorrak (9. or.).
  - VI.1. Alderdi orokorrak (9. or.).
  - VI.2. Langileria (9. or.).
  - VI.3. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (10. or.).
  - VI.4. Inbertsioak (10. or.).
  - VI.5. Inbentarioa eta ibilgetua (11. or.).
  - VI.6. Diru-sarrerak (11. or.).
  - VI.7. Gorabeherak (11. or.).
  - VI.8. Hirigintza (11. or.).
  - VI.9. Baraberri SL merkataritza-sozietatea (12. or.).
  - VI.10 Barañain Auditorioa Fundazioa (12. or.).
- 1. Eranskina. Urteko Kontuei buruzko txostena (13. or.).
- 2. Eranskina. Barañain Auditorioa Fundazioa (. or.).

Oharra: 1. eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokoretako bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen:  
[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)

#### **I. SARRERA**

Bere jarduera-programari jarraikiz, Comptos Ganberak udalaren eta bere erakunde autonomoen –“Lagunak” Udal Zerbitzua eta “Luis Morondo” Musika Eskola– 2008ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Barañaingo Udalak 1,40 km<sup>2</sup>-ko azalera du. 22.193 biztanle ditu, eta hauexek dira bertako zifra adierazgarrienak 2008ko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak 2008-12-31n
Udala	14.566.030	14.656.441	156
"Lagunak" Udal Zerbitzua	2.079.662	2.066.775	15
"Luis Morondo" Musika Eskola	955.759	999.868	23
Bateratzearen doitzeak	-386.551	-386.935	-
Bateratua, guztira	17.214.900	17.336.149	194

Oharra: 2008ko abenduaren 31ko langileen artean, gizarte enplegu babestua duten 10 langile sartzen dira.

Udalak, 2003ko urtarrilaren 17an, eratu eta bere babespean ezarri zuen Barañaingo Auditorioa Fundazioa; haren xedea da Barañaingo Arte Eszenikoen Zentroa kudeatu eta administratzea.

2004ko azaroan, udalak Baraberri SL sozietate mugatua sortzea erabaki zuen. Sozietate horren kapital guztia udalarena da, eta eginkizuna du hiri-gintza-garapeneko zerbitzuak kudeatzea, Barañaingo Garapen Integralerako Zerbitzuaren barruan. Ez da egin oraindik sozietate horren eraketari buruzko eskritura publikorik, eta sozietateak jarduerarik ere ez du.

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraiokoak eta ibai-parkearen kudeaketakoak.

2008ko ekitaldian Barañaingo Udalarari aplikatzekoa izandako araubide juridikoa honako hau da, funtsean:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurre-

kontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- Udalaren 2008ko aurrekontuaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne araudia.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, egindako lanaren norainokoa azaltzen da. Laugarrenean, Kontu Orokorrari, legezketasunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia agertzen dugu. Bosgarren atalean, 2008ko egoera-orri nagusien laburpen bat jaso dugu. Seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloz arlo.

Gainera, bi eranskin ere badaude: bata Barañaingain Auditorioa Fundazioaren egoera-orriari eta kontuari buruzkoa, eta bestea 2008ko ekitaldiko kontuei buruzko oroitidazkia, udalak egina.

Barañaingo Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntza-rengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Barañaingo Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Barañaingo Udalaren 2008ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen, alderdirik behinenean, entitatearen ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den, eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Aplikagarri zaion legedia zer neurritan betetzen den Barañaingo Udalak eta haren menpeko erakunde autonomoek 2008an aurrera eramandako jardueran.

c) Barañaingo Udalaren eta haren mendeko erakunde autonomoen 2008ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

d) Azken fiskalizazio-txostenetan ganbera honek emandako gomendioak noraino bete diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

### III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Barañaingo Udalaren kontu orokorraren fiskalizazioa egin du. Bertan, kontabilitateko egoera-orri hauek sartzen dira:

- Toki-entitatearen kontua eta haren erakunde autonomoena: Aurrekontuaren likidazioa, balantzea, galeren eta irabazien kontua eta eranskinak.
- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, kontu bateratua, zorraren egoera-orria eta kontu-hartzaitzaren txostena.

Bestalde, Barañain Auditoria Fundazioaren kontuak ez badira ere udalaren kontu orokorrean sartzen, txosten honen eranskin gisa jarri ditugu.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauiei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, udalari eta bere erakunde autonomoen dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarriko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitatea eta barne-kontroleko alderdi nabarmenenak.

Bestalde, Comptos Ganberak 2009an txosten berariazkoa egin du Iruñerriko udalek 2005etik 2008ra bitartean sinaturiko hirigintza-hitzarmenen fiskalizazioari buruz. Barañaingo Udala Iruñerrian dago. Hori dela eta, gure azterketan ez ditugu jaso udalak 2008ko ekitaldian izenpetutako hirigintza hitzarmenak, aipatutako txostenaren xedea baitira. Halere, txosteneko VI.8 atalean, Eultzako Jaurerri-

ari buruzko hitzarmena aipatzen dugu, 2008ko ekitaldian sinatua.

### IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Barañaingo Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2008ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzeko ardua, baita bere edukia-rena ere, udalarena da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

#### IV.1. UDALAREN 2008ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA.

Ondasunen inbentarioa 1992koa da, eta ez da eguneratu. Hori dela eta, ezin izan dugu egiaztatu egoera-balantzeko "Ibilgetua" izeneko ataleko saldoaren arrazoizkotasuna. Saldo hori, 2008ko abenduaren 31n, 26.306.846 eurokoa da.

Aipaturiko salbuespenaren ondorioarengatik izan ezik, udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu, alderdirik behinenetan, bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta egini-ko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauiei jarraituz.

#### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2008an udalaren eta haren erakunde autonomoen jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkotasun-printzipioari jarraituz egin dela.

#### IV.3. 2008KO ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Udalaren 2008ko egoera finantzarioak 2004ko ekitaldian hasitako joerari eusten dio; izan ere, gastu arruntak diru-sarreraren arruntak baino gehiago hazi dira eta diruzaintza-gerakin negatiboa dago; horri gehitu behar zaio ekitaldi honetan epe luzeko zorrak gora egin duela.

Ondokoak dira datu ekonomikoak:

2008rako aurrekontu bateratua 18,82 milioi eurokoa izan da gastuetarako, eta 19,41 milioi eurokoa diru-sarrerarako; alde hori konpentsatuta dago udalak 2007an izandako diruzaintza-gerakin negatiboarekin.

Aitorturiko betebeharrak 17,21 milioi euro egiten dute, eta aitorturiko eskubideak, berriz, 17,34 milioi euro. Gastu eta diru-sarreraren betetze maila ehuneko 91koa eta 89koa izan da, hurrenez hurren.

Gastu arruntek (14,44 milioi euro) gastu guztia-  
ren ehuneko 84 egiten dute, eta diru-sarrera arrun-  
tek (14,45 milioi euro), berriz, aitorturiko eskubide  
guztien ehuneko 83. 2007ko ekitaldiarekin aldera-  
tuta, gastu horiek ehuneko 6 egin dute gora; diru-  
sarrerak, berriz, ehuneko 2 egin dute gora.

Gastuen artean, langileria gastuek guztizkoa-  
ren % 45 egiten dute; diru-sarreretan, berriz, diru-  
laguntzek ehuneko 50 egiten dute; aurreko ekital-  
dietako mendetasun mailaren antzeko bati eutsi  
zaio. Tributu bidezko diru-sarrerak, 6,7 milioi euro,  
diru-sarrera guztien ehuneko 39 dira.

Aurrekontu-emaizta bateratu doituak, ekitaldia-  
ren amaieran, 6.160 euroko superabita erakusten  
du (914.622 euroko defizita zegoen 2007an). Ala-  
baina, kontuan eduki behar da 2008an 1,53 milioi  
euroko eskubideak aitortu direla, inbertsioak finan-  
tatzeko kreditu bat formalizatzeari dagozkionak.

Aurrezki garbia diru-sarrera arruntaren ehuneko  
1,14 negatiboa da; horrek adierazten du diru-  
sarrera arruntak funtzionamendu-gastuak eta  
finantza-gastuak baino 164.585 euro gutxiagoak  
izan direla (2007an, 415.380 euro positibo izan  
ziren).

Zorpetze-maila, 2008an, % 2,14koa izan da;  
horrekin, bere zorpetze-muga gainditzen du, diru-  
sarrera arruntaren ehuneko 1ekoa baita.

Guztizko diruzaintza-gerakin bateratua, berriz  
ere, negatiboa da, 273.739 euroan (-177.184 euro,  
2007an).

Epe luzeko zorra, 2008ko abenduaren 31n,  
3,34 milioi eurokoa izan zen. Bi kreditu-kontutan  
oinarritzen da. Halaber, udalak, 2004tik, urtero kre-  
ditu-kontu bat, 1,4 milioi eurokoa, itundu ohi du,  
diruzaintzako eragiketetarako. Guztira, kreditu  
kontu horietan erabilitako zenbatekoa 3,8 milioi  
eurokoa izan da (2007an, berriz, 2,3 milioi eurokoa  
izan zen).

#### IV.4. COMPTOS GANBERAK AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Txosten honen VI. atalean adierazten den  
bezala, oraindik indarrean diraute honako gomen-  
dio muntadun hauek:

- *Ganbera honek behin eta berriz adierazi izan duen bezala, azterlan eta neurri egokiak aplikatu beharra dauka udalak hala gastuetan nola diru-sarreretan bere bideragarritasun ekonomikoa ziurtatzeko.*

- *Udal inbentarioa gaurkotu eta onestea, 1992an eginikoa ez baitzen onetsia izan, ezta ondoren gaurkotua ere.*

- *Erakunde autonomoei dagokienez, udalak osatu eta eguneratu egin behar ditu erakundeon jardura kontrolatzeko eta zaintzeko erabili ohi dituen mekanismo efektiboak, eta behar diren prozedurak diseinatu behar ditu eginkizun hori bene-tan gauzatu dadin.*

- *"Baraberri S.L." merkataritza-sozietatearen nondik norakoa zehaztu edo berraztertu egin behar da; sozietatea 2004an eratu zen, eta oraindik ez da eraketa horren eskritura publikorik egin, eta inongo jarduerarik ere ez du izan.*

**V. 2008ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA****V.1. AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA.**

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa Gehik. (murrizk.)	Behin betiko aurreik.	Aitorturiko betebeharrak	Likidaturiko betebeharrak	Egiteko dauden ordainketak	Betekoia (%)	Aitorturikoaren gain. %
1. Langileria-gastuak	7.763.690	148.000	7.911.690	7.756.301	7.554.504	201.797	% 98	% 45
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuak	5.660.720	45.200	5.705.920	5.372.384	4.627.733	744.651	% 94	% 31
3. Finantza-gastuak	172.100	-32.000	140.100	129.135	129.135	0	% 92	% 1
4. Transferentzia arruntak	1.259.985	-5.200	1.254.785	1.178.424	1.040.976	137.448	% 94	% 7
6. Inbertsio errealak	3.599.500	-96.700	3.502.800	2.472.686	1.924.093	548.593	% 71	% 14
7. Kapital transf.	126.200	0	126.200	125.420	119.959	5.461	% 100	% 1
8. Aktibo finantzarioak	0	0	0	0	0	0		% 0
9. Pasibo finantzarioak	180.550	0	180.550	180.550	180.550	0	% 100	% 1
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>18.762.745</b>	<b>59.300</b>	<b>18.822.045</b>	<b>17.214.900</b>	<b>15.576.950</b>	<b>1.637.950</b>	<b>% 91</b>	<b>% 100</b>

## Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa Gehik. (murrizk.)	Behin betiko aurreik.	Aitorturiko eskubideak	Likidaturiko eskubideak	Kobratzeko dagoena	Betekoia (%)	Aitorturikoaren gain. %
1. Zuzeneko zergak	3.472.000	0	3.472.000	3.225.247	3.130.141	95.106	% 93	% 19
2. Zeharkako zergak	325.000	0	325.000	76.303	69.950	6.353	% 23	% 0
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak.	3.474.220	0	3.474.220	3.373.876	3.192.327	181.549	% 97	% 19
4. Transferentzia arruntak	7.899.910	0	7.899.910	7.725.094	7.396.192	328.902	% 98	% 45
5. Ondareko diru-sarrerak	54.060	0	54.060	51.689	49.084	2.605	% 96	0
6. Inbertsio errealak besterentzea	1.453.920	0	1.453.920	498.547	374.843	123.704	% 34	% 3
7. Kapital transf.	1.047.900	59.300	1.107.200	852.393	421.695	430.698	% 77	% 5
8. Aktibo finantzarioak	0	0	0	0	0	0		0
9. Finantza-pasiboen aldaketa	1.624.000	0	1.624.000	1.533.000	1.533.000	0	94%	9%
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>19.351.010</b>	<b>59.300</b>	<b>19.410.310</b>	<b>17.336.149</b>	<b>16.167.232</b>	<b>1.168.917</b>	<b>89%</b>	<b>100%</b>

## AKTIBOA

Izena	2008	2007	Aldea
A) IBILGETUA	26.306.846	24.332.706	1.974.140
1. Ibilgetu materiala	19.635.603	19.158.543	477.060
2. Ibilgetu ez-materiala	192.633	181.346	11.287
3. Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	6.478.610	4.992.817	1.485.793
4. Herri ondasunak	0	0	0
5. Finantza-ibilgetua	0	0	0
C ZIRKULATZAILEA	4.468.428	4.655.033	(186.605)
7. Izakinak	0	0	0
8. Zordunak	2.327.762	2.906.906	(579.144)
9. Finantza-kontuak	1.655.346	1.748.127	(92.781)
10. Egoera iragankorrak, aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	0	0	0
11. Aplikatzeko dagoen emaitza	485.320	0	485.320
AKTIBOA, GUZTIRA	30.775.274	28.987.739	1.787.535

## PASIBOA

Izena	2008	2007	Aldea
A FUNTS BEREKIAK	23.704.525	22.651.948	1.052.577
1. Ondarea eta erreserbak	15.389.484	15.149.793	239.691
2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	242.434	315.441	(73.007)
3. Kapital-dirulaguntzak	8.072.607	7.186.714	885.893
C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	3.338.009	1.985.559	1.352.450
4. Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	3.338.009	1.985.559	1.352.450
D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	3.732.740	4.350.232	(617.492)
5. Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	3.732.653	4.350.153	(617.500)
6. Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzeak eragindako doitzeak	87	79	8
PASIBOA, GUZTIRA	30.775.274	28.987.739	1.787.535

## V.3. 2008ko EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN EMAITZA

Kontzeptua	2008ko ekitaldia	2007ko ekitaldia
Aitortutako eskubide garbiak	17.336.149	15.364.524
(Aitortutako betebeharrak garbiak)	(17.214.900)	(16.125.095)
Aurrekontu-emaizta	121.249	(760.571)
Doikuntzak		
(Finantzaketaren desbideratze positiboa)	(381.313)	(378.479)
Finantzaketaren desbideraketa negatiboa	266.225	213.981
Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	0	10.447
Aurrekontu-emaizta doituia	6.160	(914.622)

## V.4. DIRUZAINZAKO GERAKIN BATERATUAREN EGOERA-ORRIA 2008ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2008	2007
+ Kobratzeko dauden eskubideak	1.807.811	2.408.806
Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.168.917	1.691.962
Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	1.010.985	1.141.074
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	151.389	73.870
(Dirubilketa zaileko eskubideak)	(523.393)	(498.021)
(Aplikatzeko dauden diru-sarrerak)	(87)	(79)
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	3.715.777	4.329.885
Gastu-aurrekontua: aurtengo ekitaldia	1.637.950	2.560.821
Gastu-aurrekontua: itxitako ekitaldiak	270.860	65.924
Diru-sarreraren itzulketak	0	57
(Aplikatzeko dauden gastuak)	(21.108)	(20.269)
Aurrekontuz kanpoko gastuak	1.828.075	1.723.352
+ Diruzaintzako funts likidoak	1.634.227	1.727.858
+ Finantziario-desbideraketa metatu negatiboak	0	16.037
= Diruzaintzako gerakina, guztira	(273.739)	(177.184)
Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina	191.947	359.511
Baliabide atxikien diruzaintzako gerakina	0	0
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	(465.686)	(536.695)



## VI. IRUZKINAK ETA GOMENDIO OROKORRAK.

Ondotik emanen ditugu, kudeaketaren arlo aipagarrienen arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko litzuzkeen neurriei buruzko gomendio eta iruzkin nagusiak.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

2008rako aurrekontu orokor bakarrari 2008ko ekainaren 24an eman zitzaion hasierako onespena. Gastuetan, 18.762.745 euroko aurreikuspenak zeuzkan; diru-sarreretan, berriz, 19.351.010 eurokoak. Erregelamendu bidez ezarritako jendaurreko epea igarota, 2008ko irailaren 22an hartu zuen indarra, behin betiko onespena argitaratzearekin bat.

Onetsitako aurrekontuaren superabitak udalak 2007an zeukan diruzaintza-gerakin negatiboa (588.263 euro) konpentsatu du, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeko 230. artikuluan ezarritakoa betez.

Udalaren kontu orokorra 2009ko urriaren 29an onetsi zen. Ez dago jasota toki entitatearen eta haren erakunde autonomoen aurrekontuen likidazioa onetsi denik.

Zenbait kreditu-aldaketa 2008ko abenduaren 31tik aurrera onetsi eta argitaratu dira.

Udalak Barañaingo Auditorioa Fundaziorako egindako ekarpena, aurrekontuko kontusail izendun batean aurreikusitakoa, programa-itun baten bitartez gauzatu zen. 2008ko azaroaren 10ean, 2008ko ekitaldiari zegokiona sinatu zen, baina fundazioak, 2008an zehar, itunean aurreikusitako ekarpenaren konturako aurrerakin batzuk jaso ditu.

Guztizko diruzaintza-gerakin bateratua 273.739 euroan negatiboa da 2008ko abenduaren 31n, zeren eta erakunde autonomoen gerakin positiboez ezin izan baitute konpentsatu udalaren negatiboa, zeinak 697.121 euro egiten baitu. Hartatik, finantzaketa atxikia duten gastuak doitzen badira, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina lortzen da, zeina negatiboa baita bai bateratuari begiratuz gero (465.686 euro negatiboa), bai udalarenari begiratuz gero (889.068 euro negatiboa).

Udalak gerakin negatiboa duen egoera horrek 2004ko ekitalditik irautu du; 2006an, berriz, salbuespena izan zen, taxi lizentzia berrietatik heldutako diru-sarrerara bereziengatik. 2007. urtearen aldean, gerakin negatiboak ehuneko 18 egin du gora.

Ganbera honek behin eta berriz adierazi izan du udalak azterlanak egin eta neurri egokiak aplikatu beharra daukala, bere bideragarritasun ekonomikoa ziurtatzeko.

Udaleko kontu-hartzaileak, txostenari erantsita-oroitidazkian, aipatzen du, aurreko ekitaldian adierazi izan duen bezala, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 230. artikuluan ezarri zena diruzaintza-gerakin negatiboa duen aurrekontu baten likidazioan hartu beharreko neurriei buruz.

*Hona gure gomendioak:*

- *Aurrekontuaren behin betiko onespena egitea aplikatu behar den ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen.*

- *Prozedurak ezartzea, kreditu aldaketen izapidetzea abenduaren 31 baino lehen buka dadin, argitalpena barne dela, kasua bada.*

- *Aurrekontuen eta kontu orokorren likidazioa onestea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean aurreikusitako epeetan.*

- *Betebeharrak edo eskubideak eragiten dituen erakunde autonomoen egintza orok kontu-hartzailetzaren edo barne kontrolaren menpe egon behar du.*

- *Barañaingo Auditorioa Fundazioarekin hitzarmenen bat eginez gero, hura kasuko ekitaldiaren hasieran sinatzea, kudeaketa hobea izan dadin.*

- *Udalak, gastuetan zein diru-sarreretan, behar diren neurriak aplikatzea, bideragarritasun ekonomikoa ziurtatzeko.*

### VI.2. LANGILERIA

Langileen atalean aitortutako betebeharrak batearatuak 7.756.301 euro egiten dute, hau da, 2008an sortutako gastu guztien ehuneko 45 eta gastu arrunten ehuneko 54.

Udaleko langileen gastuak 6.348.210 euro egiten dute; "Lagunak" Udal Zerbitzuarenek, berriz, 640.174 euro, eta, azkenik, "Luis Morondo" Musika Eskolarenek 767.917 euro.

2007ko ekitaldiaren aldean, kapitulu honek ehuneko 6 egin du gora.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa 2008ko ekainaren 24an onetsi zen hasiera batez; behin betiko onespena, berriz, 2008ko urriaren 3an eman zitzaion. Honakoa da haren osaera:

Entitatea	Lanpostuak, guztira	Lanpostu hutsak
Udala	128	43
"Lagunak" Udal Zerbitzua	17	1
"Luis Morondo" Musika Eskola	22	2
	167	46

Lanpostu hutsak, guztira, ehuneko 28 inguru dira; horietatik, ehuneko 34 udalarenak dira; horrek eragina dauka aldi baterako kontratuen kopuru handian.

2008ko enplegu eskaintza publikoan, 2008ko abuztuaren 28an onetsitakoan, 40 lanpostu huts ageri dira.

Gastu horiei buruz eginiko azterketatik ondorioztatzen dugu horiek euskarri nahikoa dutela eta zuzen kontabilizatuta daudela.

Bestalde, VI.7 atalean, gorabeherei buruzkoan, eginiko azterketatik ondorioztatzen da 2009an zehar izan direnetako batzuk langileria gaiei buruzkoak direla.

Hona gure gomendioak:

	Kontratu mota	Prozedura	Zenbatekoa (BEZa barne)
Udal ikastetxeetako eta haur eskoletako garbiketa zerbitzurako laguntzarako kontratua	Laguntza kontratua	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik goiti	499.148
Udal kiroldegiko garbiketa- eta atezaintza-zerbitzurako laguntzarako kontratua	Laguntza kontratua	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik goiti	133.920

Espediente hauei eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz eginiko azterketaren ondorioz, egiaztatu da behar bezala izapidetu direla, eta ez da atzeman aplikatzekoak diren arauen urraketa aipagarririk.

#### VI.4. INBERTSIOAK

2008. urterako aurrekontu bateratuan aurreikusitako inbertsioen ehuneko 71 bete da, eta 2.472.686 euro egin dute, hain zuzen ere ekitaldi-

• *Aldi baterako langileen kopuru handia kontuan hartuta, aztertzea ea komeni den lanpostu hutsak betetzeko behar diren deialdiak egitea.*

#### VI.3 GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Ondasun arruntetan eta zerbitzu bateratuetan eginiko gastuek 5.372.384 euro egin dute 2008an, eta ekitaldiko guztizkoaren ehuneko 31 eta gastu arruntaren ehuneko 37 egiten dute. 2007. urtearekin alderatuta, ehuneko 5eko igoera gertatu da.

Gastu horietatik 3.927.217 euro udalari dagozkie; 1.302.654 euro, "Lagunak" Udal Zerbitzuari; eta 142.514 euro, azkenik, "Luis Morondo" Musika Eskolari.

Espedienteen lagin hau egiaztatu dugu:

an aitorturiko betebeharrak guztien ehuneko 14. 2007. urtearen aldean, ehuneko 15 egin dute gora.

Inbertsioen ehuneko 93 udalak egin ditu (2.303.724 euro). "Lagunak" Udal Zerbitzuaren inbertsioak 123.633 eurokoak izan dira; "Luis Morondo" Musika Eskolakoak, berriz, 45.329 eurokoak.

Kapitulu honetako gastuen lagin bat aztertu dugu; horien artean, besteak beste, 2008ko ekitaldian eginiko honako adjudikazioak sartu dira:

	Kontratu mota	Prozedura	Zenbatekoa (BEZa barne)
Kirolen Hiribideko sareak berrizatzeko eta zolatzeko lanak	Obra	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	1.317.932
Alaitz Ikastetxe Publikoa estaltzeko zaharberritze lanak (3. zatia)	Obra	Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa	136.567

Oro har, egiaztatu da kontratuei buruzko lege-dia bete egiten dela kontratazio-espedienteak izapidetzear.

#### VI.5 INBENTARIOA ETA IBILGETUA

Udalaren inbentarioa, zeina 1992koa baita, ez zen onetsi eta ez da gaurkotu.

Hona gure gomendioak:

- *Udal inbentarioa gaurkotu eta prozedura batzuk diseinatzea, udal inbentarioa etengabe gaurkatzeko.*
- *Udal ondasunen eskrituratze eta erregistratze prozesua osatzea.*

#### VI.6 DIRU-SARRERAK

2008an, aitortutako eskubide bateratuak 17.336.149 eurokoak dira; horietatik, 14,5 milioi euro eragiketa arruntengatiko diru-sarrerei dagozkie, eta 2,8 milioi, berriz, kapital-eragiketengatiko diru-sarrerei.

Udaleko diru-sarrerak 14.656.441 euro egiten dute; "Lagunak" Udal Zerbitzuarenek, berriz, 2.066.775 euro, eta, azkenik, "Luis Morondo" Musika Eskolarenek 999.868 euro. Bateratzearengatiko doikuntzak 386.935 eurokoak dira. Horien artean, Udalak Musika Eskolari –346.000 euro– eta "Lagunak" Udal Zerbitzuari –7.435 euro eta 33.500 euro, azken horiek inbertsioetarako– emaniko dirulaguntzak daude.

Diru-sarreren aurrekontu bateratuaren betetze maila ehuneko 89 izan da. Kapitulu gehienek ehuneko 93a gainditzen dute, salbu eta zeharkako zergen kasuan, ehuneko 23ra baizik ez baitira iristen. 2007. urtearen aldean ehuneko 75ko jaitsiera izan da. Halaber, inbertsio errealeen besterentzearen ehuneko 34 baizik ez da egin, Gazolazko lurzatiak saltzeko enkante publikoa hutsik deklaratu baita. Salmenta horri buruz kalkulaturiko zenbatekoa 859.820 eurokoa zen.

2007. urtearen aldean, aitorturiko eskubideek % 13 egin dute gora, kapitaleko eragiketengatiko

diru-sarrerak handiagoak izan baitira (ehuneko 149), 2008an inbertsioetarako kreditu bat hitzartu baita. Kreditu hori 1.533.000 eurokoa da eta 15 urteko epea dauka. Eragiketa arruntengatiko diru-sarrerak ehuneko 2 egin dute gora.

#### VI.7 GORABEHERAK

Udala zenbait prozedura judizialean sartuta dago. 2009an zenbait epai eman dira, funtsean langileriaren arlokoak. Haietatik, guztira 170.000 euro inguru egiten duten ordainketak erator daitezke.

#### VI.8. HIRIGINTZA

Barañaingo Udalak duen planeamendu-araua da 1990eko abenduan onetsi zuen hirigintza antolamenduko plan orokorra. Plan hori ia erabat gauzatu dago.

2008ko abenduaren 31n, udalak ez du inongo prozedurarik egin Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak ezarritakora egokitzeko.

Hona gure gomendioak:

- *Hirigintza-plangintza LFOTUren zehaztapenetara moldatzea.*
- *Lurzoruaren Udal Ondarea eratu eta kudeatu behar da udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik; sarrerak eta irteerak erregistratu egin behar dira, eta ondasunok indarreko araudian ezarritako xedeetarako erabili direla frogatu behar da.*

III. epigrafean aipatzen den "Partikularren eta Iruñerriko udalen artean 2005etik 2008ra bitartean sinaturiko hirigintza-hitzarmenei" buruzko fiskalizazio-txostenerako ezarri zen norainokoan, Eultzako Jaurerriari buruzko hitzarmena, 2008ko otsailan sinatutakoa, aztertu zen.

Hitzarmen misto bat da, esparru horretarako plana egituratzen duten zehaztapenak aldatzen dituen eta geroan etxebizitzak eraikitzeko urbanizazio-obren kudeaketa ezartzen duena.

Haren izapidetzean, nabarmentzen da ezen, promotoreak ordaindu beharreko kontraprestazioen barruan, ezarrita datorrela udalari, urbanizazioak izandako zama uste baino handiagoen kontzeptuan, 2 milioi euroko zenbatekoa ordainduko zaiola. Alabaina, espedientean ez da ageri zenbateko hori justifikatzeko inongo txostenik.

Gaur egun, udalak adierazitakoaren arabera, hitzarmen hori ez da bete, baina jarduketa eremu bererako beste hitzarmen-proposamen bat dago, aurrekoaz nabarmen desberdina dena.

#### VI.9. BARABERRI SL MERKATARITZA-SOZIE-TATEA

Udalak, 2004ko azaroan, "Baraberi S.L." sozietate mugatua sortzea erabaki zuen; sozietate horren kapital guztia udalarena da, eta eginkizuna du hirigintza-garapenerako zerbitzuak kudeatzea, bai eta Barañaingo Garapen Integralerako Zerbitzuaren barruan kokaturiko zerbitzu ekonomikoak ere (NAOn argitaratu zen, 2005eko 5. zenbakian, urtarrilaren 12koan, hain zuzen).

Sozietatearen kapitala 9.000 eurokoa da. 2006ko irailaren 13an, udalak zenbateko hori banku-entitate batean irekita daukan kontu batean –"Baraberi S.L. en constitución" izena dauka– gordailatu zuen, haren kapital sozialerako ekarpenaren ordainketaren kontzeptuan.

Banku-entitatea sozietatea eratzeko eskrituren kopia jasotzeko zain dago, eta kontu horretako funtsei eusten die.

Kontu-hartzaitzak, 2008an, kudeaketa batzuk egin zituen egoera argitzeko. Horren emaitza izan zen ezen ezin izan zela eskritura egiletsi, udalak 2006ko irailaren 21ean notario bati sozietatea eratzeko dokumentazioa igorri zion arren, zeren eta igorritako agirietako bat iraungita baitzegoen.

Horrenbestez, sozietatearen eraketa ezin izan da eskritura publiko batean jaso.

Hona gure gomendioak:

- *Behar diren neurriak hartzea "Baraberi S.L." merkataritza sozietatearen egoera argitzeko, eta hura udalaren kontu orokorreko oroitidazkian jasotzea.*

#### VI.10. BARAÑAIN AUDITORIOA FUNDAZIOA

Barañaingo Udalak, 2003ko urtarrilaren 17an, eratu eta bere babespean ezarri zuen Barañaing Auditorioa Fundazioa; haren xedea da Barañaingo Arte Eszenikoen Zentroa –udalaren titulartasuneko– kudeatu eta administratzea.

2008ko ekitaldiko kontu laburtuak –txosten honen I. eranskin gisa doaz– kanpoko profesional batek berrikusi ditu, modu mugatuan; profesional horrek arreta jarri zuen, funtsean, kontratazioen inguruko gaitan eta urteko kontuen aurkezpenarekin zerikusia zutenetan.

Ekitaldi honetan, fundazioak 822.736 euroko dirusarrerak izan ditu, eta 850.864 euroko gastuak; beraz, 28.128 euroko defizita izan du.

2008ko ekitaldian, udalak 447.000 euro eman zizkion fundazioari, funtzionamendurako.

Fundazioak, 2008ko abenduaren 31n, 19.166 euroko kontabilitate-ondare garbi negatiboa dauka; halaber, 65.460 euroko epe luzeko zorrak dauzka, eta, azkenik, 169.334 euroko maniobrarako funts negatiboa (aktibo korrontea ken pasibo korrontea).

Ondoren, fundazioa sortu zenetik udalak egingutako ekarpenak ageri dira, bai eta Barañaing Auditorioa Fundazioak lortu dituen emaitzak eta emaitza horiek funts berekietan izan dituzten ondorioak ere.

	Fundatze-zuzkiduraren ekarpena	Funtzionamendu gastuetarako ekarpena	Udalaren ekarpenak, guztira	Ekitaldiko soberakinak (emaitza)	Funts berekiak, abenduaren 31n
2003	150.000	293.024	443.024	-25.354	124.646
2004	0	400.000	400.000	-144.417	-19.771
2005	161.250	278.428	439.678	-281.936	-140.457
2006	278.000	185.000	463.000	-108.959	28.584
2007	147.000	300.000	447.000	-166.623	8.961
2008	0	447.000	447.000	-28.128	-19.167

2009an, udalak eta Nafarroako Gobernuak hitzarmen bat sinatu zuten, zeinaren bidez Gobernuak konpromisoa hartu baitzuen 2009an guztira 200.000 euroko ekarpena egiteko, auditorioaren jarduerak finantzatzeko.

Txosten hau auditore M<sup>a</sup>. Pilar Sola Mateos andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2010eko ekainaren 30ean

Jarduneko lehendakaria: Luis Ordoki Urdazi

## 2. ERANSKINA. BARAÑAIN AUDITORIOA FUNDAZIOA

2008ko abenduaren 31ko egoera-balantze laburtuak

(eurotan, dezimarik gabe emanak)

AKTIBOA	
	2008-12-31
Ibilgetua	215.628
Ibilgetu ukiezina	88
Ibilgetu materiala	215.540
Aktibo korrontea	110.432
Erabiltzaileak eta beste zordun batzuk	107.759
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	2.673
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>326.060</b>
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
	2008-12-31
Funts berekiak	-19.166
Fundatze-zuzkidura	736.250
Aurreko ekitaldietako soberakin negatiboak	-727.288
Ekitaldiko soberakina	-28.128
Pasibo ez korrontea	65.460
Epe luzeko zorrak	65.460
Pasibo korrontea	279.766
Epe laburreko zorrak	95.501
Merkataritzako hartzekodunak	184.265
<b>Ondare garbia eta pasiboa, guztira</b>	<b>326.060</b>

## 2008ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiaren emaitza-kontu laburtuak

(eurotan, dezimarik gabe emanak)

	2008
Entitateak bere jardueraren ondorioz dituen diru-sarrerak	464.895
Salmentak eta merkataritza jardueraren ondoriozko beste diru-sarrera arrunt batzuk	356.982
Bestelako ustiatze diru-sarrerak	798
Langileria-gastuak	-430.387
Bestelako ustiatze-gastuak	-358.632
Ibilgetuaren amortizazioa	-52.213
Ustiapeneko emaitza	-18.557
Diru-sarrera finantzarioak	61
Finantza-gastuak	-9.632
Finantza-emaitza	-9.571
Zerga aurreko emaitza	-28.128
Ekitaldiko soberakina	-28.128

## **Une hauetan Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura ordaintzen ari diren “itzaleko bidesarien” finantza, ekonomia eta amortizazio alderdiei buruzko aholkularitza-txostena, Nafarroako Comptos Ganberak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen agintzea argitara dadila Comptos Ganberak eginiko aholkularitza-txostena, une hauetan Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura ordaintzen ari diren “itzaleko bidesarien” finantza, ekonomia eta amortizazio alderdiei buruzkoa.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Une hauetan Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura ordaintzen ari diren “itzaleko bidesarien” finantza, ekonomia eta amortizazio alderdiei buruzko aholkularitza-txostena, Nafarroako Comptos Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (15. or.).
- II. Egoeraren deskribapena (16. or.).
  - II.1. Orokorra (16. or.).
  - II.2. Nafarroan (16. or.).
  - II.3. Kontabilitate Publikoa eta Kontabilitate Nazionala (17. or.).
- III. Helburua (17. or.).
- IV. Norainokoa (17. or.).
- V. Ondorioak eta gomendio orokorrak (17. or.).
- VI. Iruzkina eta oharra (19. or.).
  - VI.1. Itzaleko bidesaria (19. or.).
  - VI.2. Zor publiko gisa hartzea ala ez hartzea (19. or.).
  - VI.3. Ikuspuntu ekonomikotik (20. or.).
    - VI.3.1. Bidesaria ikuspuntu ekonomikotik (20. or.).
    - VI.3.2. Kontabilitate-arauak (22. or.).
  - VI.4. Nafarroako datuak (23. or.).

### **I. SARRERA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak txosten bat eskatu zien zerbitzu juridikoei (Parlamentuko), interpreta zezaten ea Nafarroako Toki Ogasunari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko 73. artikuluko azken esaldiak berarekin dakarren zenbait obra publiko ordaintzeko erabiltzen den “itzaleko bidesaritik” eratorritzen diren etorkizuneko gastu-konpromisoak buruz informatzeko betebeharrak.

Arestian aipatutako 31/2007 Legeko 73. artikulua honakoa dio: “Ekonomia eta Ogasun Departamentuak hiruhileko naturaleko lehenbiziko hilabeteetan aurreko hiruhilekoan eginiko zorpetze eragiketen zenbatekoak eta ezaugarri nagusiez argibideak igorriko ditu Nafarroako Parlamentura, kapitulu honetan aipatzen diren baimenen babesean. Halaber, zorpetzearen egoera orokorrari buruzko informazioa bidaliko du, abian dauden eragiketen zerrendarekin eta haien ezaugarri nagusiekin”.

(Parlamentuaren) zerbitzu juridikoen txostenen honakoa dioen ondorioa ageri da:

“Ez dagokiela Parlamentuaren zerbitzu juridikoei zehaztea ea itzaleko bidesaririk (...) etorkizuneko heldu diren gastu-konpromisoak direla eta, beharrezkoa den haiek kontabilitatearen ikuspuntutik finkatzea administrazio publikoen kontuetan, EUROSTATEk defizitari eta zor publikoari buruz dauzkan irizpideen arabera.”

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak informazio hori aurkeztearen derrigorrezkotasunari buruz sortu diren zalantzen aurrean, 2010eko apirilaren 19an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak Comptos Ganberari eskatu zion fiskalizazio txosten bat egin zezan une hauetan Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura ordaintzen ari diren “itzaleko bidesarien” finantza, ekonomia eta amortizazio alderdiei buruz. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eta Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eta Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu zuten eskaera horretarako ekimena.

Nafarroako Comptos Ganberak 2010. urterako bere lan-programan txosten hori sartu zuen.

Lana auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako talde batek egin du ekainean. Era berean, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntza izan dugu.

Txostenak bost atal ditu, sarrera honetaz gainera. Bigarrenean, itzaleko bidesariaren deskribapen labur bat egiten da. Hirugarrenean eta laugarrenean, txostenaren helburuak eta norainokoa biltzen dira. Bosgarrenean, ondorio eta gomendio orokorrak jasotzen dira; eta, azkenekoan, ondorio horiek azaltzen eta zabaltzen dituzten iruzkinak eta oharrak bildu ditugu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Parlamentuko langileei eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuari lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## II. EGOERAREN DESKRIBAPENA

### II.1. OROKORRA

“Itzaleko bidesariak” lankidetzatza publiko-privatuko metodoetako bat dira. Haien helburua da ziurtagarritza azpiegitura bat finantzatu, eraiki, berritu, kudeatu nahiz mantenduko dela edo, bestela, zerbitzu bat eman egiten dela.

Honakoak izan daitezke Administrazioak esate baterako azpiegitura bat egiteko erabil ditzakeen sistemak:

1. Metodo tradizionala. Administrazioak proiektu bat egin eta hura enpresa pribatu bati adjudikatzen dio. Enpresa horri aldizka ordaintzen dio lanaren exekuzioa (ziurtagiriak), aurrekontuen kargura.

2. “Espainiar sistema” deitutakoa. Administrazio batek partaidetzaren gehiengoa dueneko enpresa edo sozietate publiko bat sortzen da azpiegitura egin eta kudeatzeko. Administrazioak kapitala ekartzen dio enpresa publikoari, eta enpresa horixe da azpiegitura hori egiteaz arduratzen dena.

3. “Alemaniar eredua” deitutakoa. Obra enpresa pribatu bati adjudikatzen zaio, baina ordainketa ez zaio aldizka egiten: ordainketa osoa obra amaitzen denean egiten da. Hau da, ordainketak obra amaitzen den arte atzeratzea lortzen da.

4. Itzaleko bidesaria. Administrazioak enpresa pribatu bati adjudikatzen dio azpiegitura baten eraikuntza eta, normalean, haren kudeaketa eta mantentzea, eta urteko kanon baten bitartez ordaintzen dio, azpiegiturari ematen zaion erabilerearen arabera.

5. Administrazio-emakida. Entitate pribatu bati azpiegitura baten kudeaketa eta ustiaketa adjudikatzen zaio, denbora jakin baterako. Erabiltzaileei ordainsari bat kobratuz finantzatzen da. Bidesariarena da autobideetan tradizioz erabili izan dena.

Lankidetzatza eredu horien agerpena bat dator, denboran, Europar Batasunaren arloan aurrekontu-politika gogortzearekin, betiere hura garapen ekonomiko iraugarria lortzeko baldintza baten gisara ulerturik. Egonkortasuneko eta hezkunde itunarekin estatu kideek defizit publikoak gutxitzeko eta aurrekontu-oreka lortzeko konpromisoak hartzen dituzte, eta publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzatza hartzen da helburu horiek lortzeko eta administrazioek beren azpiegiturak egin ahal izateko jarduketa-aukeretako baten gisara.

Itzaleko bidesarian zentratuta, adieraz dezakegu normalean hiru eragilek esku hartzen dutela:

a) Azpiegitura bat egin edo zerbitzu bat eman nahi duen administrazio publikoa, zeina azpiegituraren ezaugarriak eta baldintzak, bai eta zerbitzua emateko baldintzak ere, definitzen dituena baita.

b) Enpresa pribatu bat, zeinak eraikuntza –eta, kasua bada, zerbitzuaren kudeaketa– hartzen baitu bere gain. Normala da arloan espezializatuta dagoen enpresa baten eta finantza entitate baten artean sozietateak eratzea.

c) Eragiketa finantzatzen duen edo finantza-eragiketa zuzentzen duen entitate bat.

Sistema hori gehiago erabili da komunikabideak eraikitzeke eta osasunaren sektorean, normalean kapitaleko gastu handia daukaten proiektuetarako. Haren amortizazio-aldia luzea da eta Administrazioa da zerbitzuen erosle nagusia.

### II.2. NAFARROAN

Nafarroan itzaleko bidesariaren sistema hiru aldiz erabili da: A-12 autobidea, Bideko Autobidea, eraikitzeke; Nafarroako Ubideak hartzen dituen lurralde ureztalur bihurtzeko azpiegiturak eraiki eta kudeatzeko; eta Pirinioetako autobioiako tarte batzuk egiteke. Azken hori eraikitzeke fasean dago eta ez du ordainketa-betebeharririk sortu. Halaber, iragarri da bitarteko hori erabiliz, agian, abiadura handiko trenaren etorkizuneko azpiegituraren bat egiten dela.

Lehenengo bi obra horiei buruz ganbera honek txostena eman zuen, 2007ko irailean, honako izenburuarekin: “Donejakue bideko autobioiaren, Nafarroako ubidearen eremu ureztagarrien eta funtzionarioen montepioaren ondoriozko etorkizuneko gastuei buruzko fiskalizazio txostena.” Txos-



ten horretan, honakoa esaten genuen itzaleko bidesariari buruz:

“Zerbitzuen emakidarako ereduen bitartez, kanon bat ordainduta finantzatzaren dira azpiegituren eraikuntza eta ustiapena. Horrela, zorrik jaulki gabe atzeratzen da ordainketa, eta, gainera, ekimen pribatuari ematen zaio arriskuaren zati bat.

Europako Kontuen Sistemako (SEC-95) arauak betetzen diren ala ez kontuan hartu gabe, zorra finkatzeari edo ez finkatzeari eta zorra kontabilizatzeko moduari dagokionez, argi dago erabilera publikoko azpiegiturak direla, litekeena dela azpiegitura formalki lortzeko denbora behar izatea eta ordainketa batzuk egiteko konpromisoa hartzen dela. Hori guztia kontuan hartu behar da administrazio bakoitzaren egoera ekonomikoa aztertzean.”

### II.3. KONTABILITATE PUBLIKOA ETA KONTABILITATE NAZIONALA

Europar Batasuneko kontabilitate sistema publikoen arteko ezberdintasunez eta haiek modu homogeneoan interpretatzeko zailtasunaz ohartuta, Europar Batasunak zenbait arau ezarri ditu kontabilitatearen arloko informazioa homogeneizatzeko, batez ere defizit-mailari eta zorraren bolumenari buruzko erabakiak abiapuntu hartuta.

Arau horien prestaketan, funtsezko garrantzia daukate “Europar Batasunaren Estatistika Bulegoak” (EUROSTAT) eta, estatu mailan, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailtzeta Nagusiaren bitartez, zeina kontu publikoak egiteaz arduratzen baita, kontabilitate nazionalaren irizpideei jarraituz.

Hori dela eta, alde batetik kontabilitate publiko tradizionala daukagu, zeinak aurrekontu-likidazioa, balantzea eta emaitzen kontua jasotzen baititu eta, bestetik, kontabilitate nazionala, estatu osorako prestatzen duena Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailtzeta Nagusiak, kontuetarako sistema europarraren irizpideei jarraituz (SEC 95).

### III. HELBURUA

Nafarroako Comptos Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, eta parlamentu-eskaria kontuan hartuta, itzaleko bidesarien alderdi ekonomiko, finantzario eta amortizazioekoei buruzko txosten bat egin dugu.

Eginiko eskariari erreparatuta, Parlamentuaren zerbitzu juridikoei lehenago eginiko beste eskari baten ondorioz egin dela aintzat hartuta, Comptos Ganberak egokiagotzat jotzen du aholkularitzatxosten bat egitea “itzaleko bidesaria” izeneko lankidetzaren publiko-pribatuaren sistemaren bitartez

obra edo zerbitzu batzuk egiteak finantza-egoerarako izan ditzakeen ondorioei buruz. Horri dagokionez, honakoak dira gure txostenaren helburu zehatzak:

- Itzaleko bidesaria definitzea: ezaugarriak, baldintzak, funtzionamendua.

- Indarreko arauen arabera, aztertzea noiz jo behar den itzaleko bidesaria zor publiko baten gisara, eta zein ondorio izan ditzakeen finantza-egoeretan.

- Itzaleko bidesaria ikuspuntu ekonomikotik aztertzea.

- Itzaleko bidesarietan eginiko aurrekontu-gastua zehaztea eta hura aurreikuspenekin konparatzea.

### IV. NORAINOKOA

Planteatutako helburuak kontuan izanda, lan hau egiteko honako dokumentazioa aztertu dugu:

- “Donejakue bideko autobiaren, Nafarroako ubidearen eremu ureztagarrien eta funtzionarioen montepioaren ondoriozko etorkizuneko gastuei buruzko fiskalizazio txostena”, eta txosten horrek euskarri gisa daukan dokumentazio guztia.

- “Itzaleko bidesariarekin” loturiko kontzeptuei buruzko aurrekontu-exekuzioa.

- Lankidetzaren publiko-pribatuari buruzko arauak. Kontabilitate Plana, Kontratuari buruzko Legea, SEC-95 deitutakoa, EUROSTATEn irizpideak eta abar.

- Zenbait artikuluko doktrinal, juridikoak nahiz kontabilitatekoak, gaiari erreferentzia egiten diotenak.

- Kontabilitate arau berrien proiektuak.

Lana egin da sektore publikoaren auditoriari dagokionez Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoaren Koordinazio Batzordeak onetsiriko eta Comptos Ganbera honek bere fiskalizazio-eskuliburuan garaturiko printzipioei eta arauari jarraituz.

### V. ONDORIOAK ETA GOMENDIO OROKORRAK

Egindako lanaren ondorio orokorrak emanen ditugu jarraian. Ondorio horiek txosten honetako VI. atalean aipatu eta zabalduko ditugu.

- Itzaleko bidesaria lankidetzaren publiko-pribatu moduetako bat da, zeinaren bidez administrazio batek eraikuntza-enpresa pribatu bati enkargatzen baitio azpiegitura edo zerbitzu baten

eraikuntza, mantentzea eta ustiaketa, hura ordainduz erabileraren eta kalitatearen arabera urteko kanon batez, azpiegitura edo zerbitzu hori lanean jartzen denetik aurrera.

- Gaur egun jotzen da horrelako eragiketetan hiru arrisku mota daudela.

a) Eraikuntzatik heldu diren arriskuak; besteak beste, atzerapenek, gainkostuek, urritasun teknikoek... sortuak.

b) "Azpiegituraren erabilgarritasunaren" arriskuak; esate baterako, eskatutako bolumena ezin hornitu ahal izatea edo azpiegiturak araudiak edo kontratuak berak eskatutako kalitate-maila ezin lortu ahal izatea.

c) Zerbitzuaren eskaritik sortutako arriskuak. Zerbitzuaren erabileraren arabera sortzen direnak, aldaketa ezin zaionean egotzi erakundearen kudeaketari.

- Europar Batasunean, kontabilitate nazionalaren ondorioetarako, EUROSTATEk ezartzen du zer irizpide jarraitu behar diren horrelako eragiketa bat defizit- eta zorpetze-maila neurtzeko kontatu behar den hala ez erabakitzeko.

- EUROSTATen egungo jarraibideek adierazten dute defizitari dagokionez ez dela kontuan hartu behar ea enpresa pribatuak bere gain hartzen dituen eraikitzearen arriskua eta beste bi arriskuetatik (eskuragarritasuna eta demanda) bat.

- SEC 95 delakoaren arabera, kontuen aurkezpena estatu mailan egiten da, eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren erantzukizuna da.

- Kontabilitate nazionalaren ondorioetarako lan-kidetza publiko-pribatuan aplikatu beharreko irizpideak Ekonomia eta Ogasun Ministerioak erabakitzen ditu, EUROSTATen irizpideei jarraituz, marko aldakor eta ezegonkor batean, eta horrek nolabaiteko segurtasun eza eragin dezake.

- Ekonomia eta Ogasun Ministerioak jo zuen Nafarroan egun indarrean dauden eta itzaleko bidesariaren bidez ordaintzen diren bi jardueretan (Bideko Autobia eta Nafarroako Ubideko eremu ureztagarriak, zati batean), betetzen direla EUROSTATEk SEC 95 delakoaren ondorioetarako zor gisa kontuan izateko adierazitako betebeharrak.

- Nafarroako arauetan ez da ez aurreikuspenik ez irizpiderik ezarri itzaleko bidesariaren bitartez finantzatutako eragiketei eman beharreko tratuari buruz. Logikoa dirudi, horrenbestez, SEC 95 delakoaren irizpideak erabiltzeak eta, horrenbestez, zor gisa ez hartzeak.

- Ikuspuntu ekonomiko hutsetik, Comptos Ganberak ulertzen du itzaleko bidesariaren bitartez finantzatutako eragiketak zenbateko aldakorreko betebeharrak finantzarioak direla eta aintzat hartu beharrekoak direla zorrak sortutako zorpetzea eta finantza-zamaren zenbatekoak (interesak eta amortizazioak) baloratzerakoan.

- Kontabilitate arauak aldatzeko proiektuetan –oraindik ere ez dira onetsi estatu mailan–, itzaleko bidesariari buruzko jokabidea aldatzen ari da, ulertzen baita errentamendu finantzario bat dela, defizitean eta zor publikoan ondorioak dituen.

- Administrazio baten zorpetzearen bolumena finantza-zama bereganatzeko daukan ahalmenak mugatuta dago. Ezarrita dago muga hori diru-sarrerara arrunten eta langileria gastuen, ondasunen erosketen eta transferentzia arrunten arteko diferentzia dela.

Egonkortasunari buruzko helburuak BPGaren ehunekoan adierazten dira. European, Batasuneko kideak diren estatueterako, jotzen da zorpetze-muga BPGaren ehuneko 60 dela, eta defizita, berriz, ehuneko hiru.

- Zorpetze-mugan, -mailan eta -ahalmenean eragin esanguratsua dute tributu diru-sarreraren balizko aldaketak eta zor biziaren amortizazio-aldiak.

- Nafarroaren kasuan, eta 2009ko datuen arabera, zorpetze-muga ehuneko 13,39 da, zorpetze-maila 0,91 da eta zorpetze-ahalmena, horrenbestez, ehuneko 12,48koa da. "Onura fiskalek" aurrekontu-exekuzioan daukaten eragina kontuan hartuz gero, adierazle horiek honakoak izanen lirateke: ehuneko 6,20 zorpetze-mugarako; ehuneko 1,01 zorpetze-mailarako, eta ehuneko 5,19, azkenik, zorpetze-ahalmenerako. Nafarroako Gobernuaren zorra BPGaren ehuneko 5,64 da.

- Aintzat hartzen badugu batetik kanonen ordainketa finantza-zama gisa eta, bestetik, autobien zorpetzea soilik (izan ere, eremu ureztagarriak oraindik ere exekututzen ari dira), zorpetze-muga eta zorpetze-maila kopuru berean aldatzen dira eta, horrenbestez, zorpetze-ahalmenak bere horretan dirau. Hori gertatzen da kanonaren kopuruarengatik finantza-zama igotzeagatik eta, aldi berean, adierazlea kalkulatzeko gastuak gutxitzeagatik.

Adierazle horiek honakoak izanen lirateke: zorpetze-muga, ehuneko 14,47; zorpetze-maila, ehuneko 1,99; eta zorpetze-ahalmena, ehuneko 12,48.

“Onura fiskalak” kontuan hartuz gero, honakoak izanen lirateke adierazle horiek: ehuneko 7,40, ehuneko 2,21 eta ehuneko 5,19, hurrenez hurren.

BPGaren aldean, zorra ehuneko 7,78 izanen litzateke.

- Autonomia erkidegoen esparruan, eta horien eta Estatuaren arteko akordioen arabera, jotzen da 2011. urterako defizit-mailak ez lukeela BPGaren ehuneko 1,3 gainditu beharko. Nafarroako BPGa 18.500 milioi eurokoa dela joz gero, zorra 240 milioi eurokoa izanen litzateke.

Hori dela eta, hona gure gomendioak:

- *Aztertzea ea komeniko litzatekeen ekonomia-  
ren eta aurrekontuen arloan indarra duten arauetan itzaleko bidesarien berriazko aipamena jar-  
tzea.*

- *Irizpide juridikoak alde batera utzita, informazio ekonomiko eta finantzarioa zabaltzea zorpetze-  
ari buruzko datuak aurkeztuz, bai arauetatik heldu  
diren betebeharrak zorrotzekin, bai haien izate ekono-  
mikotik heldu direnekin ere; hori guztia Foru  
Komunitateko egoera ekonomikoari buruz ahal  
den informazio gehiena emateko eta gardentasu-  
na areagotzeko.*

## VI. IRUZKINAK ETA OHARRAK

Atal honetan, zenbait iruzkin eta ohar egiten ditugu, txostena eta aurreko atalean adierazitako ondorio orokorrak zabaltzeko eta ulergarriago egiteko.

### VI.1. ITZALEKO BIDESARIA

Gogoeta juridikoetara sartu gabe, jo dezakegu “itzaleko bidesaria” gisako kontratu bat kontratu misto izenaz ezagutzen den horietako bat dela, zeren eta, normalean, azpiegitura egitea, mantentzea eta aldi batez ustiatzea biltzen baititu; aldi horren amaieran, berriz, Administrazioari itzuli beharko zaio.

Eredu horien gorakada aurrekontu-murriztapenak agertzen hastearekin batera gertatu da, zeren eta Administrazioak eraikuntzaren ordainketen (hileroko ziurtagiriak) ordez, kanon bat ezartzen baitu, ustiaketa-aldian ordaindu beharrekoa, normalean erabileraren arabera.

Azken batez, azpiegitura Administrazioak eraikiko balu, haren kostua azpiegitura eraikitzen ari den bitartean ordaindu beharko luke, eta gero haren mantentzeaz arduratu beharko luke. Normalean, inbertsioaren zenbatekoa dela eta, zorpetu egin beharko litzateke.

Eragiketa honekin, zorpetzea saihesten du, zeren eta eraikuntzaren finantziakzioa enpresa pribatuari baitagokio, eta zorpetzearen ordez, kanon bat ordaindu behar izaten du azpiegitura zerbitzuan jartzen denetik aurrera.

Txosten honen ondorioetarako, arazoa da ea kanona urte bakoitzeko aurrekontuetako gastu arrunt huts bat den ala zor baten gisara hartu behar den.

Hau da, itzaleko bidesariarekin, Administrazioak honakoak lortzen ditu: obrak exekutatzeko haien kostua ordaindu behar izan gabe; enpresa pribatuak azpiegitura publikoen finantziakzioan sarraraztea, eta obren ordainketa geroratzea azpiegituraren amortizazio-aldi osoan. Eta entitate pribatuak, berriz, logikoa den bezala, bere etekin industrialak lortu beharko du.

### VI.2. ZOR PUBLIKO GISA HARTZEA ALA EZ HARTZEA.

Galdera horiei erantzuteko, EUROSTATEk irizpide batzuk ezarri zituen 2000. urtean, eta beste batzuk, berriz, 2004an.

Azken horien arabera, aktiboak publikotzat jotzeko –hala izanez gero, zor gisa hartuko lirateke (errentamendu finantzarioa), eta ibilgetua Administrazio Publikoaren kontabilitatean erregistratu beharko litzateke– ala pribatutzat jotzeko –errentamendu operatiboa da hori, eta joz gero, ez litzateke zor gisa hartuko eta ibilgetua enpresa pribatuaren kontabilitatean erregistratuko litzateke–, EUROSTATEk hiru arrisku mota ezartzen ditu:

a) Eraikuntzatik heldu diren arriskuak; besteak beste, atzerapenek, gainkostuek, urritasun teknikoek... sortuak.

b) “Azpiegituraren erabilgarritasunaren” arriskuak; esate baterako, eskatutako bolumena ezin hornitu ahal izatea edo azpiegiturak araudiak edo kontratuak berak eskatutako kalitate-maila ezin lortu ahal izatea.

c) Zerbitzuaren eskaririk sortutako arriskuak. Zerbitzuaren erabileraren arabera sortzen direnak, aldaketa ezin zaionean egotzi erakundearen kudeaketari.

Europako araudiak ezarri du emakida-aldian aktibo horiek ez direla jaso behar administrazio publikoen balantzeetan, erakunde pribatuak bere gain hartzen badu eraikuntza-arriskua, bai eta beste bi arriskuak ere: erabilgarritasun-arriskua edo eskari-arriskua.

Aldiz, Administrazioak bere gain hartzen badu eraikuntza-arriskua edo erakunde pribatuak arris-

ku hori bakarrik hartzen badu bere gain, publiko gisa jasoko dira.

Emakida-aldian, ondasunak publikotzat hartuz gero, kontuetan azaldu beharko dute, eta, ondorioz, ordaindu gabeko zatiari dagokion defizita eta zor publikoa handitzen dira. Ez badira ondasun publikotzat hartzen, ez dira sartzen administrazio publikoaren kontuetan, eta, hortaz, ez dute ez defizit publikoa ez zor publikoa handitzen. Bi kasuetan, azpiegitura abian jarri ondoren, administrazioak kanonaren zenbatekoa ordaindu beharko du, aurrekontuen kontura.

Nafarroaren kasuan, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren arabera, txostenean aztertzen diren bi emakidek betetzen zituzten EUROSTATEk haiek zor gisa ez jotzeko beharrezkoak diren baldintzak. Horrek berekin dakar emakida hartzen duten enpresek erregistratzen dituztela azpiegiturak beren balantzeetan; eta Administrazioak, berriz, kanoneko zenbatekoak gastu arrunt baten gisa erregistratuko dituela bere aurrekontu-likidazioetan, inbertsioak egiten bukatzen denetik.

Emakida-aldiaren amaieran, Administrazioak onura bat lortuko du, azpiegitura ematearen truke, zuzen funtzionatzeko prest egon behar baitu. Logi-

koa den bezala, hori dela eta, emakidaren azken urteetan mantentze-lanaren gaineko kontrol zorrotz bat egiten da.

### VI.3. IKUSPUNTU EKONOMIKOTIK

#### VI.3.1. Bidesaria ikuspuntu ekonomikotik

Tradizionalki zorpetzetat hartu izan da entitate batek zor-jaulkipenaren bidez hartutakoa, eta entitate finantzarioek, edo, kasua bada, beste administrazio batzuek, emandako mailegu edo kredituak.

Aurrekontuen ikuspuntutik, zorpetzea diru-sarreraren bitartez erregistratzen da aurrekontuko IX. kapituluaren, eta hurrengo urteetan, berriz, gastuen III. eta IX. kapituluaren bitartez; horietan, izan ere, interesen eta urteko amortizazioaren zenbatekoak jasotzen dira, hurrenez hurren.

Gastuen aurrekontuko bi kapitulu horien zenbatekoen baturari esaten zaio finantza-zama.

Teknikoki, zorpetze-mugaren eta zorpetze-mailaren arteko aldeak definitzen du administrazio baten zorpetze-ahalmena.

Hauxe da zorpetze-muga: gastuen 3. eta 9. kapituluak  
diru-sarreraren 1. kapitulutik 5. kapitulura

Hauxe da zorpetze-maila: diru-sarreraren 1. kapitulutik 5. kapitulura – gastuen 1., 2. eta 4. kapituluak  
diru-sarreraren 1. kapitulutik 5. kapitulura

Azken batean, zorpetzeko ahalmenak erakusten du aurrekontuko exekuziotik zenbat baliabide korrante geratzen diren finantza-zama berri bat hartu ahal izateko. Eta zama finantzario berriaren zenbateko horrek adieraziko digu itundu beharreko balizko zor berriaren guztizko zenbatekoa.

Hala eta guztiz ere, zorpetzeari buruzko azterlan eta analisisetan, eta, horien artean, politika ekonomiko eta fiskalerako ezartzen diren egonkortasun helburuetan, barne produktu gordinaren (BPG) gaineko zorraren ehunekoa erabiltzen da adierazle gisa.

Comptos Ganberaren iritziz, eta beste konpromiso batzuk alde batera utzita, Foru Komunitateak jasan dezakeen zorpetzea honakoak mugatzen du: printzipala eta hari dagozkion interesak itzul-

tzeko daukan gaitasunak, hau da, aurrekontuek zama finantzarioa jasateko ahalmenak.

Hori dela eta, eta ikuspuntu ekonomiko finantzariotik, itzaleko bidesariaren emakiden ondorioz ordaindu beharreko kanonetik heldu diren zenbatekoak kalkulu horiek egiteko jaso dira, bai emakidak EUROSTATEk jasotako baldintzak betetzen dituenean (gastu arrunta), bai betetzen ez dituenean ere (zama finantzarioa).

Bestalde, eta ikuspuntu ekonomikotik, ezin ditugu ondokoak ahaztu:

– Administrazio batek zerbitzu publiko bat emateko sustaturiko azpiegitura bat da.

– Normalean, desjabetzapena erabili izanen da (errepideen kasuan) lursailak erosteko.

– Lursailak, haien zenbatekoa enpresa pribatuak ordaintzen badu ere, ez zaizkio hari eskualdatzen, eta jabetza publikoak balira bezala agertzen jarraitzen dute.

– Emakidaren aldia iragan eta gero, administrazioari eskuratu behar zaizkion, behar bezalako kontserbazio egoeran.

Alderdi horiek guztiak direla eta, ondorioztatzen dugu ikuspuntu ekonomikotik guztiak ere ondasun publikotzat hartu behar direla.

Foru Ogasunak zorpetzeko daukan ahalmena ikusi ahal izateko, Nafarroako Gobernuaren 2009rako aurrekontu-exekuzioa hartu behar dugu abiapuntu; izan ere, 4.221.067.102 euroko eskubide aitortuak dauzka, bai eta 4.372.680.252 euroko betebeharrak aitortuak ere.

– 1. kapitulutik 5. kapitulura bitarteko diru-sarrerek 3.846.084.504 euro egiten dute.

– 1., 2. eta 4. kapituluetakoko gastuek 3.331.032.199 euro egiten dute.

– 3. eta 9. kapituluetakoko bitarteko gastuek 35.149.294 euro egiten dute.

Kontuan hartu beharko da mugaegunera iristen den zorraren orde zor berria hartu ohi dela; hau da, praktikan berritu egiten da. Hori dela eta, 9. kapituluak, gastuei buruzkoak, ia ez du aurrekontu-exekuziorik.

2008an, berritutako zorra 60 milioikoa izan zen; 2009an, berriz, ez zen batere zorrik iritsi mugaegunera; 2010ean, azkenik, beste 60 milioi iritsiko dira mugaegunera. 2009an, zorraren guztizko bolumena 1.030 milioi eurokoa da, 2008-12-31n zegoen zor biziko 815 milioi euroko zenbatekoari 2009an jaulkitako edo itundutako 215 milioiko euroko zenbatekoa gehitu behar baita.

Zorpetze muga:

$$\frac{3.846.084.504 - 3.331.032.199}{3.846.084.504} \times 100 = \frac{515.052.305}{3.846.084.504} \times 100 = \% 13,39$$

Zorpetze-maila:

$$\frac{35.149.294}{3.846.084.504} \times 100 = \% 0,91$$

Horrenbestez, zorpetzeko ahalmena ehuneko 12,48koa izanen litzateke; bestela esanda, 480 milioi euroko tartea dago finantza-zama berria jasan ahal izateko. Halere, kontuan hartu beharko litzateke gaur egun ez dagoela zorraren amortizazioa.

Itzaleko bidesariarengatik kanonaren zenbatekoak aintzat hartuz gero –2009an, 41.490.383 euro izan ziren; ikus VI.4 atala–, adierazle horiek aldatzen doaz, zeren eta gastu arruntek behera egiten baitute zenbateko horretan, eta finantzazamak, berriz, beste hainbestean egiten baitu gora. Hauexek dira adierazleak:

Zorpetze-muga:

$$\frac{515.052.305 + 41.490.383}{3.846.084.504} \times 100 = \frac{556.542.688}{3.846.084.504} \times 100 = \% 14,47$$

Maila:

$$\frac{35.149.294 + 41.490.383}{3.846.084.504} \times 100 = \% 1,99$$

Zorpetzeko ahalmenak berbera izaten segitzen du: ehuneko 12,48.

Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-exekuzioak "onura fiskal" deitutakoak jasotzen ditu. 2009an, 380 milioi euro egiten zuten. Horiek kontuan hartzen ez baditugu, honakoak izanen lirateke kopuruak:

Zorpetze muga:

$$\frac{3.465.583.506 - 3.250.578.553}{3.465.583.506} \times 100 = \frac{215.004.953}{3.465.583.506} \times 100 = \% 6,20$$

Zorpetze-maila:

$$\frac{35.149.294}{3.465.583.506} \times 100 = \% 1,01$$

Horrenbestez, zorpetzeko ahalmena ehuneko 5,19koa izanen litzateke; bestela esanda, 215 milioi euroko tartea dago finantza-zama berria jasan ahal izateko. Halere, kontuan hartu beharko litzateke gaur egun ez dagoela zorraren amortizaziorik.

Itzaleko bidesariarengatik kanonaren zenbatekoak aintzat hartuz gero –2009an, 41.490.383 euro izan ziren; ikus VI.4 atala–, adierazle horiek aldatzen doaz, zeren eta gastu arruntek behera egiten baitute zenbateko horretan, eta finantza-zamak, berriz, beste hainbestean egiten baitu gora; baina, aurreko kasuan bezala, zorpetze-ahalmenak lehengo bera izaten jarraitzen du.

Datu horiek, logikoa den bezala, aldatu eginen dira baldin eta tributuen diru-bilketak behera egiten badu edo zorraren muga-egunean aldaketarik badago. Halaber, enpresa publikoen zorpetzearen eragina aztertu beharko litzateke.

Argi dago irizpide ekonomiko horrek EUROS-TATen irizpideen aurka egin dezakeela, baina Comptos Ganbera honen ustez ezin dugu errealtate ekonomikoa alde batera utzi, eta administrazio publikoetako arduradunek ezin dituzte begiak itxi haren aurrean, nahiz eta horrek berarekin ekarri administrazioaren inbertsio-ahalmenak behera egitea.

Azken batean, itzaleko bidesaria, EUROSTA-Tek ezarritako baldintzak beteta ere, "ingeniaritza finantzario eta kontabilitatezkoaren" eragiketa bat da, aurrekontu-murrizketen garai batean administrazio publikoen inbertsio-jarduera errazteko baimentzen dena.

– 1. kapitulutik 5. kapitulura bitarteko diru-sarrek 3.465.583.506 euro egiten dute.

– 1., 2. eta 4. kapituluetako gastuek 3.250.578.553 euro egiten dute.

– 3. eta 9. kapituluetako gastuek 35.149.294 euro egiten dute.

Hori horrela:

### VI.3.2. Kontabilitate-arauak

Gaur egun, kontabilitate-arauen gaurkotze batzuk izapidetzen ari dira. Izapidetze horiek arlo publikoan eta pribatuan eragiten dute.

Informazio Finantzarioko Nazioarteko Arauen Interpretazio Batzordeak, 2006ko azaroan, CINIIF 12 delakoa argitaratu zuen, "Zerbitzuen emakidei buruzko akordioak" izenburupean. Europar Batasunak interpretazio hori bere egin du 2009ko martxoaren 25eko 254/2009 Erregelamenduaren bitartez. CINIIF 12 delakoak jasotzen ditu gisa horretako emakida-akordioak formalizatzen dituen enpresa emakida-hartzaileak aplikatu beharreko kontabilitate-tratamenduaren oinarriko arauak.

Bestalde, Kontabilitatearen eta Kontu Auditoretzaren Institutuak aurreikusita dauka ministerio-agindu bat onestea, 2011ko urtarrilaren 1ean indarrean egonen dena, azpiegitura publikoen emakida-akordioei buruzko oroitidazkietan sartu beharreko erregistro-, balorazio eta informazio-arauei buruz. Agindu horren bitartez, Europako erregelamendua nazio-esparruan egokituko da, nazioarteko kontabilitate-arauen konbergentzia-prozesuarekin bat.

Arau horiek onetsiz gero, emakida-akordioei buruzko kontabilitate-erregulazioan (besteak beste, itzaleko bidesariaren sistemari buruzkoan) gertatuko den funtsezko aldaketa izanen da enpresa emakida-hartzaileak emakidari buruzko akordioa aktibo finantzario baten moduan edo ibilgetu ukiezin baten moduan kontabilizatu beharko duela. Bestalde, emakida egiten duen enteak (administrazio publikoa) errentamendu finantzario-

aren tratamendua eman beharko die emakidakordio horiei (eta, horrenbestez, eragin bat izanen dute defizitean eta zor publikoan, bai urteko kontuetan, bai aurrekontuan), zeren eta emakida egiten duen entea baita kontrola edo erregulazioa egiten duen zerbitzu publikoaren titularra.

Kontabilitate-arauen aldaketak jasotzen duen ikuspegi berri horren xedea da lehentasuna ematea kontabilitate-eragiketen funtsari, formaren gai-

netik. Printzipio hori, izan ere, funtsezkoa da kontabilitateari buruzko erregulazioaren esparruan.

#### VI.4. NAFARROAKO DATUAK

Nafarroako Gobernuaren kontabilitatetik ondorioztatzen da honako ordainketak egin direla Bideko autobiarengatik eta Nafarroako Ubideko eremu ureztagarriengatik kanonaren kontzeptuan:

##### A. Eremu ureztagarriak

Urtea	Zenbatekoa
2007	447.706
2008	1.379.657
2009	3.912.322
Guztira	5.739.685

Ez ditugu ordainketa horiek aztertuko, zeren eta ureztaketa-sistemak oraindik ere eraikitzen ari baitira eta ordainketa horiek jada amaitutako lehenengo faseei buruzkoak baitira.

##### B. Autobia

Kanona hilero ordaintzen da, eta hurrengo urtean erregularizatu egiten da, trafiko errearen arabera. Ordainketak egotziz sortu diren urteari, honakoak izan dira:

Urtea	Zenbatekoa
2007	33.916.847
2008	35.782.059
2009	37.578.061

Urte hauetarako ordainketen aurreikuspena, euro korranteetan, honakoa zen, emakidaren garai osorako batez beste ehuneko hiruko inflazioa jota:

Urtea	Aurreikusitako zenbatekoa
2007	27.526.751
2008	29.496.668
2009	32.150.320

Hau da, kanon errealaren eta hasierako aurreikuspenen arteko aldea, batez ere trafiko uste baino handiagoaren ondoriozkoa, honakoa da:

Urtea	Aldea, aurreikusitako kanonaren eta ematearen artean	%
2007	6.390.095	23
2008	6.285.391	21
2009	5.427.741	17

Aurreikusitakoaren aldean kanonean gertatu diren egoera horiek direla eta, enpresa emakid hartzaileak emaitza hobek hartu ditu. Horrela, egitako azterlanetan, enpresa emakid hartzaileak ez du etekinik hartu autobien funtzionamenduko

bosgarren urtera arte; lehenengo bi urteetan hartu dituen emaitza errealak, berriz, honakoa izan dira, Merkataritza Erregistroan aurkeztutako kontuen arabera:

Urtea	Lortutako emaitza, erregistroan aurkeztutako kontuen arabera
2007	4.624.398
2008	4.127.464

#### C. BPGaren gaineko zorra

Zorra, BPGaren gaineko ehunekoan (datuak ez dira behin betikoak), 2009an ehuneko 5,64 inguru da. Ehuneko hori, izan ere, 1.030 milioiko zorrari dagokio (Nafarroako BPGerako, berriz, 18.245,5 milioi kalkulatu dira).

Autobiaz beste ezer kontuan hartzen ez badu-

$$\frac{1.030 + 390}{18.245,5} = \frac{1.420}{18.245,5} = \% 7,78$$

Eraikuntzaren zenbatekoa hartu dugu soilik aintzat, zeren eta horixe baita itundu behar zena obra sistema tradizionalaren arabera ordaintzeko. Hori dela eta, ez ditugu kontuan hartu ez interesak, ez mantentzeari dagokion zatia.

Ez dugu kontuan izan, ezta ere, enpresa publikoen zorra, 2008ko kontuen arabera (eskuragarri dauden azkenak), 162,8 milioi eurokoa zela.

2010ean, zor berria jaulki da: 494 milioi euro, hain zuzen ere.

Estatuak eta autonomia erkidegoek har ditzaketen neurriak buruz dauzkagun albisteen arabera, ondoriozta daiteke azken horientzat, 2011ko ekital-

gu, zeren eta ureztalurretarako azpiegiturak oraindik ere egiten ari baitira, Gobernuaren zorrari 390 milioi gehitu beharko litzaizkioke, horixe baita autobien obra guztietarako aitortu den amaierako prezioa (ez dugu kontuan hartzen hiru urteetan gertaturiko amortizazio teorikoa). Kasu horretan, zorraren ehuneko honakoa izanen litzateke:

dirako, BPGaren ehuneko 1,3ko defiziteko gehieneko zenbatekoa kalkulatu dela. Gure kasuan, 18.500 milioi euroko BPG baten gainean, 240 milioi euro egiten du. Zenbateko horri aurreikusitako aurrekontu diru-sarrerak gehituz gero, 2011 urteko aurrekontuen gastuaren gehieneko kopurua lortuko dugu.

Txosten hau auditore Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2010eko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas